

IKASTOLAN MONITORE LANETAN ARITZEKO LAN POLTSA

IKUSER elkarteak Eleizalde ikastolan monitoretza lanak egiteko ordezkapenetarako lan poltza osatu nahi du. Monitoreak, ikasleak esparru ez formaletan hezitzeaz arduratzen dira eta beraien eginkizunak honako hauek dira:

Jantokia

- Jantokian laguntza ematea
- Janari erretiluak eramaten eta batzen lagundu
- Bazkalorduan umeak zaindu
- Jantokirako sarreran eta bazkalorduan zehar umeen portaera zaindu
- Jantokia batzen eta garbitzen lagundu
- Haragia eta fruta moztu umeentzat
- Umeen elikadura zaindu eta sustatu

Patioa

- Ikasleak zaindu
- Gatazketan bitartekari lanak egin
- Elkarbizitza arauak zaintzeaz arduratu

Haur Hezkuntza

- Autobusen joan-etorrietan umeak lagundu
- Hezitzaileei gela barruan lagundu
- Ikasleak zaindu
- Bazkalorduan lagundu

Autobusa

- Umeen ziurtasuna zaindu
- Giro egokian joan daitezen zaindu
- Jarrera egokiak suspertu

1. DERRIGORREZKO BALDINTZAK

Euskalduna izatea, ahozkoan **euskara ondo menperatzea**
Elikagaien manipulatzaile karneta edukitzea edo horretan aritzea

2. BAREMAZIOA

a. **Ikastolarekin lotura (ez metagarriak):**

Eleizaldeko ikasle ohia..... 2 puntu
Bazkide erabiltzailea 1.5 puntu
Bazkide ez erabiltzailea 1 puntu
Beste ikastola bateko ikasle ohia 0.5 puntu

b. **Monitore modura esperientzia (Gehienez 5 urte, gehienez 5 puntu):**

Eleizalde Ikastolan, behar dan postuan. Urteko 1 - Hileko 0.0833
Eleizalde Ikastolan, beste posturen baten..... Urteko 0.5 - Hileko 0.0416
Beste Ikastola baten, behar dan postuan. Urteko 0.75 - Hileko 0.0625
Beste ikastola baten, beste posturen baten. Urteko 0.375 - Hileko 0.0313
Beste ikastetxe baten, behar dan postuan. Urteko 0.5 - Hileko 0.0416
Beste ikastetxe baten, hezkuntzako posturen baten. Urteko 0.25 - Hileko 0.021

c. **Baremaziorako beste puntu batzuk:**

Euskara egiaztagiriren bat 0.5 puntu

3. BALORATUKO DIREN BESTE BATZUK

Aisialdiko monitoretza titulua
Haur Hezkuntzako goi mailako teknikari titulua

DEIALDIAREN PROZEDURA ETA EPEAK

- Eskaria DERRIGORREZ idazkaritzan eskuragarri dagoen formularioaren bidez aurkeztu behar da.
- Aurkezpen epea **Irailaren 19tik Irailaren 28ra** izango da, egun biak barne (epea kanpo aurkezten diren eskariak ez dira kontuan hartuko).
- Idazkaritzako ordutegia: astelehenetik ostiralera 08:00etatik 17:00etara.
- Deialdira aurkezteko beharrezkoak diren agiriak eta baremaziorako balio dutenak, idazkaritzan aurkeztu beharko dira
- Lan poltsa honetan izena eman duen bakoitzari, dagokion puntuazioa esleituko zaio eta lan poltsan geldituko da. Beharrezkotzat jotzen badugu, pertsonalitate proba eta elkarrizketa ere egingo da.